

Giroa eta eguraldia, biak aldrebestuta

Elurak COVID 19 Koronabirusagatik isolamendu egoera bizi duen eskualdea zuritu zuen, astelehen goizean / 8-9

Lehen lerroan

Marta Lopez kutsatuta eta bakartuta dagoen Andoaingo erizainari elkarrizketa / 2-3

**Jostunak eta etxez
etxe laguntzaileak
garrantzia handikoak
bilakatu dira, egun
hauetan / 5-6**

**Aste Santuko mezak
internez bidez
eskainiko ditu
eskualdeko
pastoral taldeak / 10**

euskara bada errenta

**ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ**

APIRILAREN
6TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:
www.andoaindarraeuskaraz.eus
www.urnieta.eus





Marta Lopez Martinek gaixotasuna arinki pairatu duen arren, etxean dago isolatuta. AIURRI

"Sendatu eta ospitalera itzultzeko gogoz nago"

MARTA LOPEZ MARTIN ANDOAINDARRA, KUTSATUTAKO ERIZAINA

39 urtekoa, Iruñean finkatuta dago. Bertan osatu zuen familia, gaztetan gurasoekin Agustín Leitza kalean bizi eta gero. Koronabirusa gaingintzeko etxean osatzen ari da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Koronabirusari aurre egiteko ekimenean, lehen lerroan daude osasun arloko profesionalak. Horregatik, kutsatu guztien artean, osasun arloko langileak gehiengo dira. Marta Lopez andoaindarrak martxoaren 18an positibo eman zuen, sintomak zituela egun batzuk igaro ostean. Geroztik bakartuta dago etxean. Aurreko astean kaletxikitarrek txalo zaparrada eskaini ziotenez, harekin jarri gara harremanetan.

Lehenik eta behin, eskerrik asko Marta, gaixo egonik ere gurekin harremanetan jartzeko hartu duzun denboragatik. Urteak dira Andoaindik kanpo bizi zarela. Erizaina zara, baina horrez gain zeure burua aurkeztuko al diguzu?

Ekainean 19 urte beteko dira erizain bezala hasi nintzela. Hasieran urte eta erdi Italian eman nuen lanean, eta ondoren Hernaniko zahar egoitzan hasi nintzen. Donostiako Ospitalean egun batzuk igaro ondoren, Iruñara itzuli nintzen. Itzuli

diot, bertan ikasi nuelako. Azken 16 urteak Iruñeko Clínica Universidad de Navarra ari naiz lanean, solairu berean.

Erizain gehienak bezala, txandaka aritzen naiz lanean. Gure solairuan badira espezialitate ezberdinak: Traumatologia, neurologia eta neurozirurgia, eta nefrologia. Tarteka zirurgia plastikoa ere bai, kasu erreparatzaileetan bereziki. Bularreko minbizia eta antzekoak dituztenen kasuez ari naiz.

Noiz hasi zinen gaizki sentitzen?

Martxoaren erdialdera, gauez nengoan lanean. Martxoaren 15a igandea zen, eta goizez lan egitea egokitu zitzaidan. Arratsalde hartan minez hasi nintzen: hanketan, hezurretan, aldakan, belaunean... kamioi bat gainetik pasa izan balitzait bezala. Ez nion kasu handirik egin, gauez egon nintzen lanean eta nahiko lanpetuta... Nekeari leporatu nizkion sintoma horiek.

Gaua erdipurdi pasa eta lanea joan nintzen. Paracetamol goizez hartuta, primeran nengoan. Egun horretan gure solairua Koronabirusaren eremu bilakatu zuten. Goiz horretan paziente guztiak beste solairuetara eramán zituzten eta arratsalde gure gelak Koronabirusarekin kutsatutakoak hartzeko egokitu genituen. Arratsalde mugitua izan zen gora eta behe- ra, materiala konprobatuz... Gauez berriro minez hasi nintzen eta lankide batek kutsatuta egon nintekeela aipatu zidan. Medikuei galdetzeko esan zidan.

Izan ere, egun batzuk lehena- go bagenuen ebakuntza egin zioten paziente bat eztulka hasi zena. Hurrengo egunean probak egin zizkioten, gaizki sentitzen hasi zelako eta positibo eman zuen. Harekin egondako lankideen zerrenda egin zuten, gaixotasuna gehiago zabaldu zitekeelako. Martxoaren 15ean hasi nintzen sintomekin. Neuk ez nuen horrekin lotu, egia esan.

Dena esatera, protokoloei dagokionez, bi aste epean gauzak asko aldatu dira, baina duela bi edo hiru aste ez zen horrela.

Martxoaren 16an gaizki nengoan, eta 17an hobeto. Testa egiteko eskatu zidaten, eta testak negatibo eman zuen. Beharbada gutxi kutsatua nengoelako, edo lagina gaizki hartu zidatelako. Martxoaren 19an berriro egin nuen proba, goizez. Arratsaldean emaitza eman zidaten, positiboa zela zioena.

Kolpe modukoa jaso zenuen emaitza jakitean?

Erizainok informazio asko daukagu, eta hasieratik nekien goiz edo berandu kutsatuko nintzela. Zeren eta lehen lerroan gaude, gure artean edozein izan daiteke positibo.

Eta zer egin zenuten, nola jokatu zenuten lanean eta etxean?

Jakin nuenetik isolatuta nago, etxeko logela batean. Ahal dela isolamendua bere komun propioa duen gela batean egin behar da,

airea berritzeko leiho batekin. Telefono bat izan behar da, kanpokoekin harremanetan jartzeko. Eta gure arropa berezita sartu behar da, poltsa batean. Poltsak egon behar du itxita, eta garbitzeko momentuan gure arropa bakarrik garbitu behar da 40-60 Cko tenperaturan. Nire etxean horrela egiten ari gara.

Zer moduzkoa izan da etxekoekin egokitzea?

Ume txikiak ditut. 2 urte eta 6 urtekoak. Zaharrenak ulertzen du egoera, eta oso zorrotz ari da garbiketa kontuetan. Gauean bakarrik egoten naiz, eta egunean zehar logelatik maskarillarekin ateratzen naiz. Oso oso garrantzitsua da eskuak ondo garbitzea. Edalontziak edo platerak ez ditugu inoiz partekatzen..., nire etxean oso ondo dakite hori.

Haurrek aparte bazkalten dute, eta gero senarrak eta biok. Etxeko guztiak ondo daude, nire senarrak ez dauka inongo sintomarik. Bera astean behin ateratzen da erosketak egitera. Zaborra botatzera egunero jaitsi behar du, txikienak pardela erabiltzen duelako. Eskilaratik jaisten da maskarillarekin. Lankide batzuk egoera berean ditut, eta horiek ere 12-15 egun daramate bakartuta.

Zer moduz sentitzen zara, osasunari dagokionez?

Gaztea naiz, osasuntsu nago eta esaten didatena egia bada, ez zait ezer gertatuko. Hezur eta hankeko minekin hasi nintzen eta egunak aurrera joan ahala min hori joan egin zen. Gero sudur kongestioa iritsi zen. Usaimena eta dastamena galdu ditut. Sukarra ez dut izan, 37,4 C egun batean bakarrik. Buruko mina oso tarteka, eta Paracetamol batekin nahikoa izan da. Beherakoa izan nuen, piska bat, egun bakarrean. Normala izaten da, eta etorri bezala joaten da. Ez-tula oso gutxi, pare bat egunetan eta oso modu isolatuan. Oso modu arinean pairatzen ari naiz Koronabirusa.

Zehaztuko zeniguke zein den zure lana ospitalean?

Gaixoen garbiketa lanak, sendagaiak eman, medikuarengana pasa, gaixoarekin egon... Lanean gaizteenetarikoa naiz, eta oso giro ona dugu. Nire lagun minek hor egiten dute lan, kanpoan ere harremana dugu. Lagungarria da, bagara sei erizain kutsatuta eta egunero elkarri mezuak idazten dizkiogu.

Lan egiten dugun solairua pazientez bete da. Gauza berria da guretzako, inoiz ez garelako honen aurrean aurkitu. Isolatua dauden pazienteak izan ditugu. Bata, eskularruak eta maskarilla jarri behar izan ditu baina horrez gain betaurrekoak, txanoa, guante bikoitza... Dugun presioa handia da. Ondo lan egiten ari garen edo ez, kutsatuko naiz edo ez... oso pisutsua da horrela lan egitea.

Pazienteak bakarrik daude, eta adinari dagokionez denetik dugu. Konplikazioa arnasketarekin izaten da. Aiton-amonak oso bakarrik daude, eta ez dituzte guk ditugun medioak: Internet edo eskuko telefonoak.

Gu sartzen gara logelara gure lana egitera, baina ezin gara denbora gehiegi egon. Kutsatuta daude eta aukera gehiago dago kutsatzeko. Gehienok umeak ditugu eta horrelakoetan zure lana ahalik ondoen egitea da. Baina gero etxera bueltatu behar dugu.

Neurri zorrotzak bete behar dituzue. Bai. Lanerako arropa jantzi, solairura igo eta lanaldia amaitzean xaboi bereziarekin dutxa hartu.

Beste arropa bat jarri, eta gero aldagelan norberaren arropa jantzen dugu. Azken asteetan protokoloa maiz aldatu da eta ezjakintasun handia egon da. Eta hori pisutsua egiten da langileentzat. Baina hain giro ona dugunez, elkarri lagunduz ari gara.

Prebentzio medio guztiak beharrezkoak dira, zuentzat eta denontzat. Etxean geratu behar dugu, oso oso inportanea da hori. Ezin ahaztu dendariak, farmaziakoak, garbiketa lanean dabiltzanak, poliziak... Isunak jartzen dituztela? Jarri behar dituzte, hau ez da txorakeria. Birusak edozein hil dezake. Aberatsa izan, medikua ala erizain izan.. hau igaroko da eta denok aldatuko gaitu. Jakingo dugu bereizten zer den garrantzitsua, eta ezer ez: Kafe bat hartzea bikotearekin, edota

"LANAREKIN MAITEMINDUTA NAGO, GOGOKO DUT ETA HOR EGOZ BEHAR DUDALA SENTITZEN DUT"

lagunekin egotea zeinen inportantea den konturatuko gara.

Gauza asko aldatu behar dira. Ez gaude ohituta, zailak dira gauza hauek baina ikasi beharra dago eta gertatzen ari zaiguna onerako izango da. Dena pasatzean pertsona hobeak izateko izan dadila. Orain elkartasun handia dago. Nire ama alarguna da, eta bakarrik bizi da Txitibar plaza aldean. Bizilagunek lagundu egiten diote, egun hauetan. Zenbat jende bizi den bakarrik, zer pentsatua eman behako liguke.

Niregatik ama bereziki kezkatuta zegoen, baina egunero hitz egiten dugu eta ondo nagoela entzutean lasaitu egiten da. Neu oso positiboa naiz, objektiboa, eta egia kontatzen diot. Ahalik eta azkarren sendatu nahi dut lanera bueltatzeko. Nire lanarekin maiteminduta nago, oso go-

"BIRUSAK EDOZEIN HIL DEZAKE. OSO GARRANTZITSUA DA PREBENTZIOA, SERIO HARTU BEHAR DA"

goko dut eta hor egon behar dudala sentitzen dut.

Txalogarria da, garai zail hauetan. Edozein izan daiteke positibo, eta otsoari belarriak ikusi arte ez gara neurriak hartzen hasi. Oro har ezer egongo ez balitz bezala ibili gara eta kutsatu garen gehienak prebentzio mailak ezarri aurretik kutsatu gara. Kanean ez egotean jende gehiago ez kutsatzea lortu da. Txinan zer gertatzen zen ikusten ari ginen, baina oso urruti dago Txina.

Espainian eta Italian ez dira hartu beharreko neurriak hartu eta horrela joan zaigu. Gauzak gaizki egin dituztela? Beti bezala. Esaten dutena baino jende gehiago dago kutsatuta. Guri bai edo bai egiten digute proba, oso beharrezkoak garelako.

Krisia sortu zenetik 12 orduko txandak egin ditugu. Bi egun jarraian 12 orduko lanaldiak egiten ditugu. 07:30etik 19:30etara, eta hurrengo egunean berdin, baina arratsaldean hasita... Atsedeen hartzeko hiru egun ditugu eta gero berriro lanera. Guk horrela egiten dugu lan.

Presioa da handia. Norbait hiltzen bada protokoloa aldatu

egiten da, eta gogorra da. Jendea bakarrik dago. Ez da beste heriotza bat bezala, familiak ezin dio hildakoari eskua hartu, edo agur esan... oso gogorra da.

Gizarteak egunero txaloak oparitzen dizkizue, bestalde. Zuri bereziki Kaletxikitik ere iritsi zaizkizu.

Lehen egunetan negar egiten nuen. Oso hunkigarria da. Denok dugu ezagunen bat erizain dabilena, eta gure lana besteena bezain inportantea da. Txaloena benetakoa dela ikusten da. Emozio handikoa izan da, negar asko egin dut.

Kaletxikiko Amaia Bakero nire ahizparen lagun mina da. Jakin zuenean kutsatuta nengoela, auzoan aipatu eta txaloen bideoa bidali zidaten. Negar egin nuen bideoa ikustean. Bazkardion ere kartelak jarri zituzten eta beste bideo polit bat helarazi zidan Nemuxeko Ramonek.

Ea egoera ez den asko luzatzen, ea ahalik eta gutxien kutsatzen garen eta ea ahalik eta aiton-amon gutxien joaten zaigun. Prebentzioa oso garrantzitsua da, serio hartu behar da. Hau ez da txantxa, jende asko hil egin da eta jende asko hilko da.

KORONABIRUSA

ETXEAN BAKARTURIK EGOTEKO NEURRIAK

ADAR BADA PAZIENTE BAKARTUTAKO GELA BATEAN EGON DADILA

ETXERAKO OINARRIAK

- Bakartutako pertsonarekin ez kontaktatu.
- Pazientea pertsona bakar batek arda dezala.
- Pazientearekin edo bere gauzekin kontaktua izaten den bakoitzean eskuak ura eta xaboiarekin garbitu.
- Kontaktutokiak sarritan garbitu: txorrotak, etengailuak, atetako eskutokiak...

ETXEAN BAKARTURIK EGOTEKO NEURRIAK

- GELA AIREZTATUTA EDUKI. KALERA BEGIRA DAGOEN LEHIO BATERKIN ETA ATEA ITXITA.
- TELEFONOA PIZTUTA EZAN.
- OSAKIDETZA
- EUSKO JAURKARITZA GOBIERNO VASCO

NEURRIAK

- GELATIK IRITETZEKOAN MASKARA IPHNI ETA SEGURTASUN-TARTEA GORDU.
- GARBITZEKO: UTXIRA ERABILI (TOKA-KOILARAKADA BAT UN LITRO BAKOTZEKO).
- POSIBLE BALDIN BADA, BAINUCELA BAT PAZIENTEA BERTZAKO.
- JATEKO ETA EDATEKO TRESNAK, TEMPERATURA ALTUAK GARBITU, ONTZE GARBIGAILUAN, AHAL BADA.
- ZABOR-ONTZIA, ESTALKI AUTOMATIKOAREKIN ETA BARRUKO POLTEA ITXITURA HERMETIKOAREKIN.
- ERABILUTAKO ARROPA ETA MAINORREAK: POLTEA ITXI BATEAN BASTU GARBIGAILUAN GARBITZENO.
- ESKUAK GARBITZEKO MODU EGOKIA: 40-60 SEGUNDU URA ETA XABOAREKIN.

Kontsultara doazenen kezka

AMAIA AGIRRE SENDAGILEA

Andoaindarra Berastegin ari da lanean, eta herritarren artean beldurra eta kezka antzematen ditu: "Ez dakigulako noiz arte iraungo duen kutsatzeko arriskuak"

Ainhua Gil ANDOAIN

Berastegiko sendagilea zara. Zer nolako egoera sorraz du koronabirusak sendagileen kontsultetan? Zein aldaketa ekarri dizkizue?

Covid-19aren agerpenak alda-keta asko ekarri dizkigu eguneroko lanean, asko eta handiak. Nire unitatea Ibarra da, eta, adibidez, han asteazkeneko mediku eta erizain guztiak elkar-tu egiten ginen, saio klinikoak egiteko; saio horietan batzuen eta besteen kontsultetan azaltzen zitzaizkigun kasuak aurkeztu eta eztabaidatzen genituen. Koronabirusa agertu denetik, ordea, horixe utzi genuen bertan behera lehenbizi, autobabeserako neurri zorrotzak hartu behar izan ditugulako. Berastegin erizaina eta biok bakarrik gaude eta gure arteko distantzia mantentzea errazagoa da. Gure unitateko gainerako lankideekin, harremana telefonoz mantentzen dugu. Azken egunotan, egunero bilera izaten dugu Skype bitartez, bakoitza bere kontsultatik, noski.

Covid-19ak gure eguneroko zereginean ekarri duen beste aldaketa handi bat odol estrakzioena izan da: lehen egunero egiten genituen zentro guztietan. Baina, une hauetan, paziente onkologikoei eta urgenteak kontsideratzen ditugunei bakarrik egiten dizkiegu.

Aldaketa horiek hasieratik bertatik jarri ziren martxan eta halaxe mantentzen ditugu gaurko egunerokoan, baina egunero sortzen dira aldaketa berriak, birusaren portaeraren arabera. **Nola bideratzen dituzue eguneroko kontsultak?**

Gaur egun, esan bezala, egunero-egunero ditugu aldaketak. Medikuen kontsulta presentzialak desagertu egin dira, orain



Amaia Agirre andoaindarra. AIURRI

hitzordu guztiak telefonoz ematen ditugu. Guk deitzen diegu pazienteei hitzorduren arabera, eta telefonoz moldatu litezkeen kontsultak horrelaxe bideratzen ditugu; aldiz, pazienteak kontsultan ikusi beharra dugula kontsideratzen dugunean, beste hitzordu bat ematen diogu, presentziala eta egunean bertan zentroan. Kontsulta presentzialen artean ohizkoa baino denbora tarte handiagoa uzten dugu, pazienteak itxarongelan elkarrekin egokitu ez daitezten.

Orain dela egun batzuk martxan jarri den beste aldaketa

"ETXEALDI HAU AMAITZEAN, JARRAITU BEHARKO DUGU HIGIENE NEURRIAK ZAINTZEN"

bat "arnas kontsultak" sortzea izan da. Tolosako osasun zentroan zentralizatuta daude eta Tolosaldeko ESIko mediku guztiok pasatzen ditugu kontsultak, txandaka. Nola funtzionatzen du horrek? Ba, pazienteak eta medikuak telefonoz hitz egiten dutenean, medikuaren galderei erantzunez pazienteak bere sintomak kontatzen dituenen, medikuak erabakitzen du "arnas kontsultara" bideratu behar ote duen. Kontsulta horien helburua da Covid-19ak kutsatuta egon litekeela pentsatzen dugun paziente hori ez joatea kontsulta

"BOLADA BATEAN SAIHESTU EGIN BEHARKO DUGU JENDE MULTZO HANDIETAN BILTZEA"

arruntera, anbulatoriora doazen gainerako pazienteak kutsatzeko arriskua saihesteko.

Nola bideratzen dituzue bestelako zainketa-lanak?

Kurak eta sintrom-en kontrolak lehen bezala egiten jarraitzen dugu, erizainaren kontsultan, baina hitzorduak tarte handiagoarekin emanez, paziente bat baino gehiago batera ez egokitzeko.

Segurtasunerako baliabideak ondo iritsi al zaizkizue?

Guk hilaren amaieran jasotzen ditugu behar ditugun material sanitarioak. Martxoari zegokion eskariarekin oso justu iritsi gara hilaren bukaerara. Espero dugu apirilari dagokion eskaria iristean, behar dugun guztia etortzea.

Egoera honetan, zein da herritarren kezka nagusia?

Beldurra eta kezka. Beldurra birusarekin kutsatzeko, eta kezka ez dakigulako noiz arte iraungo duen kutsatzeko arriskuak. Honi buruz, oso garbi utzi nahi dut Espainiako gobernuak ezarritako lau asteko konfinamendu hau amaitzen denean, horrek ez duela esan nahiko kutsatzeko arriskua desagertua egongo denik; ez, kutsatzeko kasuen kopurua jaitsi egingo da, baina birusa oraindik hor egongo da, bere ezaugarriekin. Horregatik, etxealdi hau amaitzean, jarraitu egin beharko dugu higiene neurriak zaintzen, eskuak ondo garbitzen, eztula ukalondoan egiten, perezko mukizapiak erabiltzen eta abar; horregatik, bolada batean saihestu egin beharko dugu jende multzo handietan biltzea. Neurriak lasaitzen joango dira, baina ez dira egun batetik bestera desagertuko, etxealdia amaitu izanagatik.

Beldur handia sumatu al duzue zuen jendearengan?

Bai, sumatu dugu eta oraindik sumatzen dugu. Pandemia egoera bat pasatzen ari gara, minutuero jasotzen dugu gertatzen ari denaren informazioa, eta kopuruak beldurgarriak dira. Normala da beldurra izatea.

Bakoitza bere etxean sartuta, kezka eta beldurrak... Zein eragin du edo izan dezake horrek osasunean?

Nik dakidala, hain konfinamendu luzea eta hain espazio mugatuan ematen den lehenbiziko aldia da eta, oraingoz, ez dago ikerketarik honelako etxealdi batek izan dezakeen eraginari buruz. Momentu honetan ikerketa bat dago martxan, konfinamenduak umeengan eta nerabeengan izan ditzakeen eragina aztertzeke. Baina informazioa biltzen ari dira oraindik, inkestak bitartez. Nolanahi ere, badakigu isolamenduak zer eragin izaten duen adin handiko pertsonengan. Adineko jende asko sozialki bakartuta bizi da arrazoi desberdinengatik. Eta ikusi da horrela bizi direnen artean depresio, galera kognitibo edo sistema inmunitarioaren galera kasu gehiago egoten direla, isolamendu sozialean bizi ez diren adin berekoen artean baino.

Badakit zaila dela honelako konfinamendua betetzea, baina gaur egun teknologia asko dugu eskura; telebista, ordenagailuak, telefono mugikorrek aplikazio pila batekin..., horrek denak asko lagundu digu etxealdia eramangarriago egiten. Imajina al dezakegu zer izango litzatekeen egoera hau bera bizi behar izatea, adibidez orain dela 60 urte? Askoz ere gogorragoa izango litzateke.



Urnietako
udala

ONGIZATE EMOZIONALA



- Pentsatu egoera hau pasatu egingo dela
- Isolamendua kutsadura saihesteko beharrezkoa da
- Sortu zure eguneroko errutina
- Egon besteekin telefonoz konektatuta
- Salatu jarrera positiboa izaten eta erlaxatu
- Informatuta egon zaitez baina mugatu informazioarekiko espozizioa

ELIKADURA



- Menu osasuntsu eta orekatuak gertatu itzazu
- Fruta, barazkiak eta lekaleak jan itzazu
- Ongi hidratatuta egon, ur asko edan ezazu
- Otordu artean mokadurak saihestu, opil industrialak, adibidez

KORONABIRUSA

**EGOERA HAU ZURETZAKO GEHIEGI BALDIN BADA
LAGUNTZA ESKATU EZAZU ZURE OSASUN ZENTROAN**

ARIKETA FISIKOAK



- Egin itzazu egunero ariketa fisikoak: etxeko lanak, dantzan, kirola eta oinez ibili
- Saihestu sedentarismoa
- Ez zaitez ordu bete baino gehiago jarri lekuan exerita egon

LOAREN HIGIENE-OHITURAK



- Lo errutina bat sortu ezazu
- Lo-ordutegi erregularrak sortu itzazu
- Ohera joateko eta ohetik jaikitze ordutegia planifikatu ezazu
- Ez zaitez ohean denbora gehiago geratu
- Ez zaitez gauez telebista aurrean berandurarte egon



Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Elkartasun jostunak ekimeneko sustatzaileetakoa da Leire Martin. AIURRI

Elkartasun jostunak

LEIRE MARTIN ZAHARREN EGOITZAKO LANGILEA ETA JOSTUNA

Villabonako Santiago zaharren egoitzako langilea da, eta baita eskulan eta zaharberritze tailerretako irakaslea ere. Besteak beste, Villabonan edota Andoainen

Ainhoa Arozena ANDOAIN

Bi lanak uztartuz, zaharren egoitzetara eta beste hainbat tokitara bideratzeko, oihalezko maskarak egiteko ekimena jarri du abian. Erantzun bikaina izan du.

Nondik nora jarri duzu abian ekimena?

Joan zen asteen, egoera honen aurrean babestuta lan egiteko materiala jaso genuen Santiago egoitzan, baina oso material gutxi iritsi zitzaigun. Babes neurriak bermatzeko material falta handia geneukanez, maskarak egiteari ekin zion nire amak.

Zahar egoitzako lanaz gain, eskulan eta zaharberritze ikastaroak ere eskaintzen ditut hainbat lekutan, tartean, Amasa-Villabonan edota Andoainen, eta whatsapp talde ugari dudanez, talde haietara luzatu nuen deia. Amak maskarak nola egin

erakusten zuen argazki bidezko tutoriala osatu zuen, eta huraxe bidali nien taldekideei, maskarak egiten parte hartzeko laguntza eskatuz. Oso erantzun ona jaso dugu, bai whatsapp taldeei eta bai ondoren sortu den ahoz ahokoari esker ere. Oihartzun handia hartu du ekimenak eta herritar asko batu zaigu. Oso gustura gaude.

Zein material erabiltzen duzue maskarak egiteko?

Orain artean, jendeak etxean dituen oihalekin egin ditu, aurrez aipatutako tutorialari jarraiki. Etxean daukadan mate-

rialak zabalitzen ere hasi naiz ni dagoeneko; oihalak bezala, baita gomak ere. Beharren arabera ari gara moldatzen. Jostunak edo josten dakiten herritarrek ari dira ekimenean parte hartzen. Baina egunez egun, jende berria gehitzen ari zaigu ekimenara. Herriko apaiak ere bat egin du gure deiarekin eta baita Santiago egoitzako egoiliarren familia ugari ere. Besteak beste, Olaederra kiroldegia ere materiala utzi digu. Oso pozik gaude erantzunarekin eta halako olatua sumatuta, 'Elkartasun jostunak'

"JOSTUNAK EDO JOSTEN DAKITEN HERRITARRAK ARI DIRA EKIMENEAN PARTE HARTZEN"

'ELKARTASUN JOSTUNAK' IZENEKO WHATSAPP TALDEA SORTU DUGU

izeneko whatsapp taldea sortu dugu.

Nola bideratu duzue ekimena? Egindako maskarak nora eraman behar dira?

Herritarren eskutik maskara asko jasotzen ari ginenez, haiek biltzeko gune bat zehaztea erabaki genuen. Basajaun liburudendan utzi behar dira maskarak aurrerantzean eta guk jasoko ditugu bertatik.

Santiago egoitzara soilik edo leku gehiagotara ere banatzen dituzue maskarak?

Hasieran Santio egoitzarako bakarrik hasi ginen, baina maskara asko eta asko jasotzen ari garenez, leku gehiagotara zabaltzen ari gara orain. besteak beste, Andoaingo zahar egoitzara. Eta zahar egoitzetara ez ezik, supermerkatuetako langileentzat ere bideratu ditugu dagoeneko haietako batzuk. Aurrerantzean, saltoki txikietara ere iritsi nahiko genuke.

Maskarez gain, pantailak ere bai...

Pantailak aurpegia babesteko gailuak dira. Diadema moduko pieza bat inprimatu, eta hari azetatozko (plastiko gogorra) xafila bat gehituz osatzen dira babesgarri horiek. Aurpegi osoa babesten dute eta oso lagungarriak dira lanerako.

Telebistan nahiz webgune ezberdinetan ikusi genuenez, 3D inprimagailuak dituzten pertsonak pantailak egiten hasi ziren, eta 3D inprimagailuak dituzten eskualdeko herritarrei deia luzatu nahi genien egoitzarako pantailak egiteko eskatzeko. Baina lortu ditugu dagoeneko, EMAN S.A. industria eta grafiken eskutik. Oso eskuzabal jakatu dute eta eskerrak eman nahi dizkiegu.

Eskasia aipatzen duzu behin eta berri...

Bat egiteko aukera

Elkartasun jostunak ekimenarekin bat egin edo berri zehatzagoa jakin nahi duenak, leyretxu22@gmail.com helbide elektronikora bidal dezake mezua.

Bai, baldintza onetan lanean aritzeko materiala behar dugu. Ez bakarrik maskarak eta pantailak, gorputza babesteko bata edo buzoak ere behar ditugu. Bata gutxi iritsi zaigu oso..., birusari pasatzen uzten ez dioten eta paper itxurako materialez eginiko bata edo buzoen eskasia dugu. Batean eta bestean eskaera egin dugun arren, oso zaila da haiek lortzea.

Egoera zail honen aurrean, Osakidetza eman zaio lehentasuna eta bertara ari dira bideratzen material gehiena. Gainerakoak, berriz, bigarren maila batean gaude.

Elkartasun jostunak ekimenak, bestalde, ekimen berri bati zabaldu dizkio ateak. Azalduko al duzu buruan darabilzuen ideien berri?

Basajaun liburu-dendako arduradunaren eta bion artean beste ekimen berri bat martxan jartzea bururatu zaigu. Bizi dugun egoera iluna kontuan izanda, hain zuzen, egoitzetako langileentzako animo-eskutitzak eta egoiliarrei zuzendutako marrazkiak edo postalak osatzeko deia herritarrei zabaltzea, lan horiek jaso eta egoitzako langile nahiz egoiliarrei banatzea, ilusioa eta poza zabaltzeko, lagungarri baita guztia.



"Laguntzeko prest dagoen herria gara"

MAIALEN MUJIK ANDOAINGO COVID BOLONDRES TALDEKO KIDEA

"Esker honeko mezu asko jaso ditugu eta benetan pozgarria da pertsona helduek gudan jarri duten konfiantza"

Erredakzioa ANDOAIN

Argi utzi nahi du andoaindar oso ezberdinak elkartu direla Andoaingo Covid Bolondresen taldean, eta "krisi egoeran laguntzeko prest dagoen herria dela" erakutsi dutela.

Zer dela eta hasi zineten bolondres bezala lanean?

Andoainen martxoaren 12an jendea urduri jartzen hasi zen, Koronabirusa dela eta. Hurrengo egunean etxean geratzeko aholkua eman zuen Espainiako Gobernuak; baina zetozen egunetan aholku hori behar bilakatu zen, kutsatuak saihesteko. Italiako egoera zein zen bage-nekien, eta ikusi genuen han pertsona batzuk bolondres gisa laguntzen ari zirela. Segituan Andoainen kuadrilla bat gaiaren inguruan hitz egiten hasi zen eta denbora gutxira talde bat osatu zuten. Whatsapp bidez taldera batzeko aukera zabaldu zen.


Pandemiaren ondorioz behar batzuk azaleratuko zirela ikusi genuen, batez ere arrisku egoeran zeuden herritarrei laguntzeagatik ekin genion.

Erraza izan zen lanean hasteko gestioak egitea?

Ez zen oso erraza izan. Pandemia bat dagoenean, Alerta egoera bizi dute pertsonak. Oso ohikoa da ezjakintasuna, urduritasuna eta beldurra. Beraz, oso zaila da horrelako egoera batean jendea laguntzeko konfiantza helaraztea. Ezinbestekoa iruditu zitzaigun instituzioen laguntza. Hasiera batean, Udalarekin kontaktuan jartzen saiatu ginen, baina tamalez ez genuen erantzunik jaso. Gure kasa hasi ginen lanean. Egun gutxira, Gurutze Gorriarekin kontaktuan jarri ginen.

Nola lortu zenuten horren talde osatua biltzea?

Guztia ondo irten da hasieratik, talde antolatua izan garelako. Koronabirusagatik herrian



Maialen Mujika gaztea. ACBT

behar batzuk egongo zirela ikusi genuen: batetik, haurren zaintza. Hasieran gurasoek lanera joan behar zuten eta haurrak senitartekoekin edota aiton-amonekin uzten zituzten, beraz, arrisku egoeran zeuden pertsonekin. Behar handia ikusten genuen bertan.

Bigarrenik erosketa taldea. Arrisku egoeran dauden adineko herritarrek daude Andoainen. Guzak horrela, arrisku egoeran ez gauden herritarrok euren lana egitea pentsatu genuen, betiere guztion osasuna bermatuz.

Hirugarren taldea, garbitasuna edo higieena da. Babes hori bermatzeko materiala behar genuen, eta mugimendu handia egon zen beharrezko materiala lortzen saiatzeko.

Laugarren taldea osatu da, sustapen eta hedapen taldearena. Talde hau arduratzen da informazioa helarazteaz, sare sozialak kudeatzeaz eta, oro har, beharrezko informazioa jendea zabaltzeaz. Gurutze Gorriarekin lotura dutenak dira, eta baita beharrek dituzten bizilagunekin kontaktuan egoten direnak ere.

Zer dela eta Gurutze Gorriarekin elkarlana?

Taldeko bat eurekin hitz egiten hasi zen, eta hasieratik oso harrera ona jaso genuen. Geure lan egiteko moduarekin bat zetozeela esan ziguten. Horrez gain, zortea eduki genuen, egin behar genituen gauzak egiteko material nahikoa baitzuten. Gurutze Gorriak konfiantza handia ematen du eta, horrek, aurrera egiten lagundu digu.

Nola gestionatzen dituzue deiak eta eskakizunak?

Gurutze Gorriarekin elkarlanean hasi garenetik babesa handiagoa jaso dugu, eta adineko jendea-ri informazio gehiago helarazi diogu. Andoaingo Udalak gure berri eman zuen azkeneko unean, baina egia da gurekin kontakturik ez dutela eduki. Badakigu ere deiak egon direla 75 urte gorako pertsona helduei nola dauden jakiteko, eta zerbait behar badute Gurutze Gorriarekin eta Andoaingo bolondres taldearekin kontaktuan jartzeko esan diete. Horrez gain, Osakidetzan ere geure taldearen berri eman dela jakin dugu eta horregatik eskerrik eman nahi dizkiegu.

Dei asko Gurutze Gorriari iristen zaizkio zuzenean, eta dituen eskakizunen arabera erosketa taldeari pasatzen diote deia. Sustapen taldeak bitartean kontaktua mantentzen du laguntza eskatu duen pertsona horrekin, konfiantza helarazteko.

Hori guztia eginda, pertsonari erosketa zerrenda eskatzen zaio eta zein ordutan pasatzea nahi duen galdetu. Horren arabera, bolondresa Gurutze Gorriarekin batera erosketak egitera joaten da.

Gurutze Gorriaren eta geure koordinazioak oso ondo funtzionatu du. Oso pozgarria izan da arrisku egoeran dauden pertsonengana iristea.



Urretabizkaia eta Usandizaga lanean, Juanita Alkain plazatxoan. AIURRI

"Desinfekzio eta garbitze lanetan ari gara, egunotan"

JAXONE USANDIZAGA KALE GARBITZAILEA

Agustin Urretabizkaiarekin batera kalez kale dabilta

Xabier Lasa AIURRI

Jaxone Usandizaga eta Agustin Urretabizkaia Andoaingo Udaleko kale garbitzaileak Zumea kalean topatu ditugu lanean.

Nola ari zarete antolatzen egunotan?

Hamar lagunek osatzen dugu lan taldea, eta gure arduradunak bitan banatu gaitu osasun krisia izendatu zenez geroztik: aste bat lanean eta beste etxean, horrela txandaka. Binaka lagun kamioi banatan eta bosgarrena zakarrontziak husten ari gara, eta lan ordutegia 07:30etik 11:30era luzatzen da.

Zeintzuk dira zereginak?

Kaleak oso txukun daude, jakina, baina gure zeregina askotarikoa da, batez ere jendea gehien dabilen tokiak (saltokietako sarrera inguruak, bus geltokikoak...) eta gizakien eskuen kontaktua izan duten elementuak (barandillak, eserlekuak...) desinfektatu eta garbitzen ari gara.

Babes neurriak hartzen ari al zarete zeuek ez kutsatzeko?

Beharrezkoa direnak, bai. Eskularruekin aritzen gara eta makina-barrualdea edo lan-tresnak erabili aldiro alkoholarekin garbitzen ditugu. Nolanahi ere, beti geratzen zaigu zalantza noraino den nahikoa...

Zuetako inor gaixotu al da orain arte?

Lankide bat gaixotuta dago, baina ez dakigu birusak ala beste edozerk jo dion. Proben emaitzaren zain dago.

Kaleak garbiak ez ezik, jendez hutsuak ere topatzen ari zarete.

Bai, eta sentsazio arraro samarra da; inpresioa ematen du kaleak huts-hutsik ikusteak! Goizeko orduetan batik bat, kamioi-garbitzailea gidatzen zozenean adi-adi ibiltzea eskatzen dizun une kritikoa izaten da, giza mugimendu handia izaten baita kalean gora eta kalean behera: Haurrak eskolara, jendea lanera edo enkarguetara... Orain, oster, alde banatara eta atzera begira jarri, eta inguruan inor sumatzen ez! Lasaitasuna bai lan egiterako orduan, baina hotzikara pixka bat ere eragiten du panorama horrek.

Kalera, batik bat 50-60 urtetik gorako jendea ari da ateratzen, goizez behintzat, eta enkarguetara doaz gehienak. Ume eta gazteen arrastorik ez, ezta balakoietan ere! Ikusita dago nahikoa lanpetuta dabiltzala ikastetxeetatik agintzen dizkieten etxekolaneekin. Orohar, egunez egun gutxitzen joan da kalean dabilen jende kopurua; eta dabiltzanak, gero eta gehiago maskarilla jantzita.

Beste zerk deitu dizu arreta jendearen jokabideari dagokionez?

Normaltzen edo egokitzen ari garela salbuespeneko egoerara, esango nuke. Izan ere, zenbait jokabide ulertezinagoak ziren aurreneko egunetan; esate batera, zakarrontzietan zakarrak uzten zituzten askok, edukiontzietan utzi besterik ez-eta. Salto handietan ere, egundoko ilarak sortzen ziren... Horrelako detaileak ezkututzen ari dira egunerokotasunetik.

ANDONI URBISTONDO

URNIETA | 2020.3.30

Ehunka esaera zahar dauzka euskarak, eta kronika irekitzen duen lerro buruan agertzen dena, gustukoenetakoa. Hainbat esparutarako balio baitu. Astelehenan eskualdeko goi auzo eta belazeak zuritu zuen elur apurraren harira ere bai. *'Ez zara kexatuko, bada? Behintzat elurra ikusi duzu negu honetan'*. Esaldi hori hamar aldiz jaso nuen nire Whatsappean. Etsipenean itota, negua hipotekatuta, gurean udaberrian kale bazterrak inoiz ez dituela zuritzen aintzat hartuta, pozgarria, noski, elurra gure etxeko leihoetatik gertu ikustea. Are gehiago konfinamendu garai latz hauetan.

Eguraldia eta elurra. Iragarpenak eta mapak. Haserrarazteko tramankuluak. Eguraldia iragartzen duten eredu meteorologiko mordoa daude, eta gabiltzanok sobera dakigu bost egunetik harago egiten diren prebisioek ez dutela zipitzik ere balio. Baina hain negu zozoa izan ondoren, nahikoa mapa batzuk hotzalditxo bat iragartzea, denek alarma pizteko. Eta ez, preseski, Espainiako Gobernuak agindutako Alarma Egoera. Ereditu meteorologikoekin beste euskal esaera zahar egoki bat erabili behar da: urrutiko in-txaurrak hamalau, gerturatu eta lau. Alegia, sekulako hotzaldi eta elurteak iragartzen dituztela hamar egun bistan, eta egun hori hurbiltzen den heinean, hotzaldia eta elurtea haizeak eramaten duela. Pasa den ostiraleko zenbakiek zioten eskualdean kale bazterrak zurituko zituela. Gero ikusi duzue zertan geratu den. Elur maluta ziztrin batzuk baino ez.

Tornado edo zirimolen peskizan ibiltzen direnak bezala ibili behar da elurraren arrastoan. Igande gauean lo begi bat irekita egin behar da. Ohe ondoko segapotoan euriaren etorrera iragartzen duen rain alarm aplikazioa martxan, eta interneten Kapildui mendiko radarra. Holfuy Ernio-ko web gunea ere bai, 1.075 metrora dagoen tenperatura aintzat hartuz elurra eskualdeko herrietatik gertuago dagoen kalkulatzeara posible baita. Azken bistadizoa, astelehen goizaldean, ordu biak aldera. Hernion 3.6 gradu zero azpitik. Urnietan elurra egiteko Hernion -6 egin behar du, gu-



Adarramendi, Larraintxuri bordatik (340 metro). JOSEBA KORTAJARENA

Zerri goseak, ezkurra amets

Astelehen goizak elurte txikia utzi zuen Urnietan, ezustean, elur kota 300 metrora jarri baitzuten eguraldi iragarleek; Besabi eta Adarramendin gogoz bota zuen, baina astearte eguerdirako dena urtu zen

txienez. Kuluxka lasai egiteko tartea.

Goizeko 07:30ak. Irratiko eguraldi parte, Whatsappean abisurik ez. Pertsiana altxa. Berdea. Lasaitasuna. Kafetegian, 'kamarero, hutsa eta doblea' esatea, hurrengo zeregina, Berri Txarrak-ekoek abesten zuten bezala. Baina ez. Ez dago kamarerorik. Ezagun batek esan zidan, ez aspaldi, *'hi, jekitziaz aparte, esnatu re in bihar dik e?'*. Ba horixe. Jaiki bai, esnatu ez. Gosaria nik prestatu behar. Zortzietako parte irratian, sare

sozialetan elurretako lehen argazkiak, eta bat-batean, Whatsappa sutan. Jonathan, Joseba Oiarzabal... *'elurra ari dik!!!'*. Begia leihora. Ari du. Elur bustia... Martxa.

Aiurrik emandako *Salvoconducto* edo ibiltzeko baimena

"BESABIN, DAGOENEO LODI ELURRA. URNIETARREZ DIOGUN MODUAN, LORI!"

eskuetan. Udaltzainei abisua. Autoa martxan. Iruraingo termometroan gradu bat. Ollamar baserriko bihurgunean errepidea zuritzen, eta Altzibarren gora ja, mantso, badaezpada, non eta ez zaren neguko rallyetako gidari trebea. Xoxoka zuri, 240

DATORRENEAN KORONABIRUSA HISTORIA IZANGO DA; ELURRAZ GOZATZEA LIBRE IZANEN DA

metro eskas. Ertzainen autoa, arrapaladan niregana. "Egunon, egunon, hau eta beste. Bai, bai, segi lasai". Abisua jasoa zuten nonbaitetik, nire ustez. Besabin, dagoeneko, lodi elurra. Urnietarrez diogun moduan, lori! Elurra mara-mara, malo malo, eta Besabin salda bero bat hartu ezin. Posible ote?

Azkorte aldera azken buelta. Hemen ere zuri, eta Xoxoka baino dezente beherago. 197 metro. Etxera bueltan Whatsapp talde guztietan argazkiak bidali, eta etxean muturtuta dauden haserre-bazileoa, mendian edo bizikletan ibili ezin baina ibili ahal izate edozer gauza egiteko gai izango liratekeenak, lanbide zenbaitek etxetik ateratzeko baimena dutela onartu ezinik. *'Etxean geratu hadi', 'ni ere joango ninukek argazki batzuk ateratzera, hori trabajo esencial al duk?'*. Horiei guztiei eskuminak, hurrengo elurtera arte. Udazken negura arte, noski. Ordurako, gauzak normal, Koronabirusa historia izango da, eta elurraz gozatzea libre izanen da, denentzat.

Elurrak lana ematen digunontzat ere bai.



Alpeetako paisaia dirudi. Hernio eta Herniozabal, Andoain aldetik. DIEGOBARRASA



Elurra mara-mara, Besabi aldean. ANDONIURBISTONDO



Xoxokan, besabiko bidegurutzean. ANDONIURBISTONDO



Elurra gogotik bota zuen Besabi aldean. ANDONIURBISTONDO



Adarra, Lasarte aldetik. TXUSTER



Urrietako ikuspegia zuritzen ari zela, astelehen goizean. ANDONIURBISTONDO



**Martxoaren 30eko
elurtearen irudiak
sarean ikusgai.**

Albiste ugari www.aiurri.eus gunean.

ARGAZKIAK ETA BIDEOAK

www.aiurri.eus

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



PRENTSA OHARRA

PASTORAL BARRUTIA URUMEA HARANA

Aste Santuko mezak Internet bidez

Urumea harana Pastoral Barrutiak Youtuben duen kanalean mezak eskainiko ditu, kristautentzat hain berezia den Aste Santuan. Youtuben edo Googlen "Urumea harana Pastoral Barrutia" hitz gakoak sartuz, bideo emanaldietara sartzeko aukera izango da (www.youtube.com/channel/UCrN_khMsdyUe9CJFxBm3vw). Lehenxeago konexioa egiteko aholkua eman dute, ohar berean: "Ospakizun-orduak zehaztuak datoz, ospakizun bakoitza ordua baino baino lehentxeago igoko delako internetera". Ez dira zuzeneko emanaldiak izango, baina ohiturak agintzen duen ordu jakinetan ikusteko aukera izango dela ziurtatu nahi dute.

Apirilak 5. ERRAMU IGANDEA:
Aste Santuko Sarrera. 11:00.

Apirilak 9. OSTEGUN SANTU:
Jaunaren Afaria. 18:00.

Apirilak 10. OSTIRAL SANTU:
Guruzbidea. 11:00.
Pasio ospakizuna. 18:00.

Apirilak 11. LARUNBAT SANTU:
Pazko Gaubela Laburra. 08:30.

Apirilak 12. PAZKO IGANDEA:
Pazko Jaia. 11:00.



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Urtebete edukiontzi grisari ongietorria eman genionetik

Martxoaren 30ean urtebete bete zen argazki herritarra egin genuenetik 2019 hasieran udalerrri osoan ezarritako edukiontzi grisari ongietorria emateko. Gogoratu behar da gaikako bilketaren lehen emaitzen arabera, %44tik %63ra igo zela, hondakin birziklagarrien igoera eta errefusaren jaitsiera nabarmena gertatu zelarrik.

Halaber, 2016ko azaroaren 12an edukiontzi marroiari eman genion ongietorria, beste argazki herritar batekin, pare bat hilabete lehenago ezartzen hasi ziren edukiontzi marroia erabiltzea eskatzeko aldarriarekin.

Bada, urte hauetako eboluzioaren emaitzak argi utzi du lehen geneukan



edukiontzi berde irekia zela arazoa eta gaikako bilketa sistema eraginkorra behar-beharrezkoa genuela aurrera egiteko. Emaitzek (%70eko gaikako bilketaren ateetan gaude, %66 inguruan) erakutsi dute hori dela bidea.

Andoaindarrei eskatu nahi diegu jarrai dezatela bide honetan orain ere, emaitzak are gehiago hobetzen eta hondakinak egoki sailkatuz. Guztion onerako da. Ingurumenak, osasunak eta Andoainek eskertuko dizute.



2020ko argitalpenen egutegiari jarraipena emanez, Aste Santuan ez da astekaririk inprimatuko.

Datorren Aiurri astekaria, paperean: APIRILAK 24, OSTIRALA

www.aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idaizkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urrieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ** BAZTERREKO UDALAK

ALIATUAK: **INSTRIDE** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

Unietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bitkam**

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Barne antolaketa eta lan dinamika berriak

KORONABIRUSA ETA ADMINISTRAZIOA Alarma egoera ezarri zenetik, Urnietako Udalak bere giza baliabide guztiak herritarren beharrei erantzutera bideratu ditu. Barne-antolaketa eta lan dinamika aldatu behar izan du

Erredakzioa URNIETA

"Udal eraikinak itxita daude, baina modu telematikoa jar daitezke herritarrek udaleko sail ezberdinekin harremanetan, izan ere, funtsezkoa da herritarren beharrei erantzuna ematen jarraitzea", adierazi du Udalak ohar bidez. Ondorengoak dira kontakturako telefonoak:

- Bertan 943 00 80 00: gai orokorreari buruzko kontsultak egiteko.
- Udaltzaingoa 943 00 80 90: segurtasun gaiekin loturiko kontsultak egiteko.
- Kontuhartzailletza 943 00 42 24: gai fiskalekin lotura duten kontsultak egiteko.
- Gizarte Zerbitzuak 943 00 83 49: behar sozialei buruzko kontsultak egiteko.

Udalak, ohar berean adierazi duenez, "ahal den kasu guztietan etxetik lan egitera bideratu ditu udal langileak, horretarako, telelanerako sistema abian jarri".

Zerbitzu publiko funtsezkoak

Udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak, Bertan, garbiketa zerbitzuak, hilerria, etxez-etxe laguntza zerbitzua, hondakinen biltzea, uraren hornidura eta saneamendua, argiteria publikoa, informatika zerbitzua, bide eta espazio publikoetan larrialdiak artatzeko mantentze-zerbitzuak eta komunikazioa dira ezinbestekotzat hartzen direnak.

Gainerako langileek etxetik egiten dute lan eta bilerak telematikoki egiten dira, bai langileen artekoak, eta baita, arduradun politikoen artekoak ere: "Egunero gauzatzen diren bilerak horien bidez bizi dugun egoeraren jarraipena egiten da erabaki berriak hartzen joateko. Orain, lehentasuna, egoera zail honetan herritarrek dituzten beharrei erantzutea izan arren, Udalak ahal den neurrian lanean jarraituko du du egoera normal-



Udal zerbitzu guztiak itxita daude. AIURRI

URNIETAKO UDALAK EZINBESTEKO DIREN UDAL ZERBITZUEN ZERRENTA ARGITARATU DU

tasunera itzultzen denean esku artean dituen egitasmo eta proiektuak martxan jartzeko, eta egoera honek utziko dituen ondorioei aurre egin eta erantzuteko".

Informazio guztia herritarren eskura

Ez-ohiko egoera berezi hau dela eta, Urnietako Udalak neurri asko hartu behar izan ditu azken asteetan. Erabaki horien guztien berri herritarrei ahalik eta modurik garden eta azkarrenean emateko, komunikazioari garrantzia berezia ematen ari zaio. Eta horretarako eskura dituen kanal guztiak erabiltzen ari da, hala nola, webgunea, URNIETA APP aplikazioa eta Twitter eta Facebook sare sozialak.

Harremanetarako bide telematikoa

Koronabirusaren hedapena geldiarazteko Urnietako Udalak bere eraikin publiko guztiak ixteko erabakia hartu zuenetik, udalarekiko harreman guztiak telefonora edo erregistro elektronikora mugatzen dira. Herritarrek beraz, aurrez aurreko zerbitzua ez izanagatik, Urnietako Udalarik eskabideak eta idazkiak egoitza elektronikoen bidez bidaltzeko aukera dute. Bada, erregistro elektronikoa erabiltzen ez dakiten herritarrei zeregin hori nola egin daitekeen azaldu asmoz, Udalak gida bat sortu du. Gida hori PDF formatuan kontsulta edota deskargatu daiteke urnieta.eus webgunetik.

Gida horretan herritarrei zehazten zaio Udalarik idazki bat bidaltzeko bere webguneko zein atalera joan behar duen, eta jarraitu beharreko pauso guztiak zeintzuk diren.

Enpresa eta autonomoei zuzendutako webgunea

KORONABIRUSA ETA ADMINISTRAZIOA Beterri-Buruntzako udalen informazioa eta aholkularitza zerbitzua

Erredakzioa URNIETA

Krisiaren eragina gutxitze aldera, Beterri-Buruntzako udalek zerbitzuak zentralizatzea adostu dute. Enpresa eta autonomo guztiei zuzenduta dago eskaintza. "Eskura ditugun gaitasun guztiekin eta gainontzeko administrazioekin batera (Gobernu Zentrala, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Tokiadministrazioak)" arituko dira. Etor-tzearen diren neurri publikoen nahiz diru-laguntza deialdien berri emango dute. Eta horiek eskualdean aktibatze bideak erraztuko dituzte, "informazioa eta aholkularitza eskainiz".

Beterriburuntza.eus

Arreta zerbitzua nahiz laguntzen inguruko informazio guztia beterriburuntza.eus web orrialdean batuko dute. "Eskualdeko teknikariak eta udal bakoitzeko teknikariak elkarlanean, web orrialdeko informazioa eguneratzen joango dira".

Informazioa bi atal nagusitan banatu dute, aipatu webgunean: Autonomoak eta Enpresak.

"Helburua da eskaera guztiak jaso eta banakako erantzuna ematea". Prentsa-ohar bidez aditzera eman dutenez, 24 orduko epean jarriko dira interesatuarekin harremanetan. Aipaturiko web orrialdean gaiz, in-

teresatuek bi telefono zenbaki dituzte eskura. "Zalantza guztiak argitu eta behar bezalako aholkularitza bideratzeko".

- Telefono zenbaki orokorra: 943 304 221 (8:00-14:00).
- Telefono zenbakia COVID-19: 699 692 175.

Arreta zerbitzu honekin, uneen uneko eskaerei erantzun nahi zaie. Bide batez, jasotako informazioaren kudeaketa "oso baliagarria izango zaigu gero ondorioei aurre egiteko: behar kolektiboak detektatu eta eskualde mailako estrategi bateratua eraikitze", Beterri Buruntzako Udalek aditzera eman dutenez. "Gure helburua eskualdeko ekonomia ahalik eta azkarren berraktibatzea da", eta egoera honek guztiak ahalik eta eragin sozial gutxiena eragitea eskualdean.

Garapen Agentziarik oraindik ez da sortu, baina Andoain, As-tigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek agentziaren pareko zerbitzua eskaintzen dute.

"GURE HELBURUA ESKUALDEKO EKONOMIA AHALIK ETA AZKARREN BERRAKTIBATZEA DA"

Koordinazioaren aldeko eskaera

Andoaingo EH Bilduk "erakunde ezberdinek modu koordinatuan lan egin" behar dutela eskatzearekin batera, proposamen ezberdinak jarri zituen mahai gainean. Jarraipena egiten ari direla diote, ohar bidez, "oso garrantzitsuak diren bi hauei batez ere":

- Tasa eta zergei dagokionez, "familien egoera ekonomiko berrira egokituko den plan bat egin behar du Udalak".
 - Emergentzia fondoa irekitzea: "Merkataria, ostalari, autonomo, edota enpresa txikiak izaten ari diren galera ekonomikoei laguntza eman behar zaie udaletxetik".
- Bestalde, proposamen berriak egin zituzten asteartean:
- "Internet sarbide edo gailu informatiko egokirik ez duen ikaslearen beharrei erantzutea".
 - "Udalak telefono bidezko arreta psikologikoa eskaintzea proposatzen dugu".
 - Bestalde, Udalarik zerbitzua ematen dieten enpresen kontratuak eteteko aukeraren aurrean, langile horiek %100eko soldata jaso ahal izateko aukera bideratzea.

Erredakzioa ANDOAIN

Konfinamenduaren atarian, Eusko Jaurlaritzak ikastetxeak ixtea erabaki zuen. Ikasleak eskolara joan gabe daude, martxoaren 13az geroztik. Andoaingo hiru ikastetxeetako zuzendariekin izan gara, euren eguneroko mar-txa nolakoa den jakin asmoz.

AITOR IRIONDO**AITA LARRAMENDI IKASTOLA****Nola eragin dio Aita Larramendi ikastolari egungo egoerak?**

Langile guztiak gaude etxean, ikastolara joan gabe. Horrela daramagu 15 egun. Teknologia berrien laguntzarekin moldatu gara. Zikloka banatu eta lan egiteko modu desberdina erabili dugu, ikaslearen edo horien autonomiaren profilaren arabera. Haur hezkuntzan familiaren laguntzarekin. Hasi gara deiak egiten, argazkiak bidaltzen, bideoak bidaltzen... Umeak irakaslea etxean dagoela baina ondo dagoela ikus dezan.

Lehen hezkuntzan, harremana izateaz gain, irakasleak lanak bidaltzen dizkie e-postaz eta plataforma digitalen bidez. Gurasoen parte hartzea garrantzitsua da, eta eskertzekoa da jasotzen ari garen erantzun ona.

DBH eta Batxillergoan autonomoak direnez euren kabuz lanak egin eta laguntza eskatzen diete on line dauden irakasleei.

Ikaslearen ikasketa mailan zer nolako eragina izan dezake?

Ardura handia hartu behar dute ikasleek, batez ere Bigarren hezkuntzan. Autonomia asko landu behar dute egoera honetan aurrera ateratzeko. Astelehenean jasotzen dute lanen zerrenda eta, euren kabuz egin behar dituzte aste osoko lanak. Autonomiaz gain teknologien erabilera ere garrantzitsua da une honetan. Orain ikusi da behar beharrezkoa dela. Dena den, teknologiak ez ezik tratu pertsonalari eusteak ere badu bere garrantzia.

Kezkatzen duena Batxillergoko eta selektibitateko ikaslearen egoera da. Hasieran horretan zentratu ginen, hor jarri genuen indar handia. Iraskaleak maila guztietan ari dira lanean baina batxillergoan batez ere bideo konferentzien bidez. Bideo bileren bidez eta bideoak sortuz ikasturtearen jarraipen estua egiten da.

Kezka hori beti eduki dugu denok: Ikasleek, gurasoek eta irakasleok. Baina uztailera era-



Aitor Iriondo Aita Larramendi ikastolako zuzendaria. AITALLARRAMENDI



David Urtasun, La Salle Berrozpe ikastetxeko zuzendaria. LASALLEBERROZPE

Ikastetxeen berregokitzapena

HEZKUNTZA KORONABIRUS GARAIA Aurreko Aiurri astekarian Urrietako ikastetxeen berregokitzapena ezagutzeko aukera izan zen. Andoaingo hiru ikastetxeen txanda da, oraingoan. Zuzendariei galdera-sorta bidali eta hauexek dira erantzunak

matean denbora handitu egin zaigu, eta antolatze denbora asko eman digute. Materia erakusteko eta ikasleek hori ikasteko badago denbora. Ekaina osoa edukitzea selektibitatea prestatzeko oso garrantzitsua da. Denok lasaitu gara, eta beraz, modu onean erantzungo diogu selektibitatearen erronkari.

Arlo psikologikoa ere ez da alde batera utzi behar den gaia.

Denengan du eragina. Irakasle, langile eta gurasoengan. Egoera honek ekarriko ditu eragin psikologikoak. Guregan eta ikasleengan sortu dira antsietatea egoerak, edo ezinegona, tristura, haserrea... sortuko dira eta sortzen ari dira pixkanaka pixkanaka. Ikastolako langileekin, tutoreekin eta orientazio arloaren laguntzarekin irizpide batzuk zehaztu dira.

Azalpen positiboak eman behar dira. Kontuan hartu behar salbuespenezko une honetan laguntzeko jarrera onena denok etxean geratzea dela. Hori da lehenengo pausoa. Egoera zein

den argi esan behar zaie ikasleei. Azken batean, informazioa edukitzea da eurek lasai egoteko modurik onena. Eta garbi adieraztea egoera honek amaiera duela, nahiz eta momentu batean ez ikusi, baina pasako den zerbait da.

Normaltasunera itzuliko gara. Hau dena borrokatzea egokitzen zaigu guri eta familiari. Lehen esan bezala, familiaren lana oso garrantzitsua da eta izaten ari da. Gainean daude, eta gainean jarraitu behar dute, bai etxeko lanen arloan eta baita arlo psikologikoan ere. Beti eduki behar da jarrera aktiboa eta positiboa, gehiago egoera honetan. Behar dira errutina batzuk jarraitzea egoera honi aurre egiteko.

**DAVID URTASUN
LA SALLE BERROZPE
Nola eragin dio egoerak ikastetxeari? Nola egokitzen ari zarete egoera berri honi?**

Lehenik eta behin esan beharra dut ikasle, familia eta La Salle Berrozpeko pertsonen oso ha-

rrera ona egin diotela krisi egoera honi. Lehen egunetan ohikoak diren zalantzak eta kezak izan ziren, baina gaur da eguna ematen ari garen erantzunaz oso pozik gaudela.

Aste hauetan gure familiei eta ikasleei online ikaskuntza pertsonalizatua eskaini ahal izan diegu etapa eta ziklo bakoitzean. Eta, batez ere, ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua emateko gai izan gara.

Ikastetxearen “zutabeak” mantentzen ditugu eta horri eskerrak, baikortasunez eta erronkari aurre egiteko gogo biziz jarraitzen dugu; gertutasunean bai familia eta bai ikasleekin; bakarkako arretarekin, eta nola ez, pertsona bere osotasunean zainduz (osasu fisikoa, mentala eta soziala).

Hori aurrera eraman egin ahal izan dugu, alde batetik, lehenik ere online plataformekin lan egiten ari ginelako. Horregatik, familia-ikasleak zein irakasleak egoera horretara hain ondo egokitu gara. Eta, beste aldetik, Ikastetxearen funtzionamendu egiturak aukera ematen digu koordinatzeko, etapa eta esparru guztietan, zerbitzu integrala eskaini ahal izateko.

Eskerrak eman nahi ditut honetan ari diren langile, irakasle, ikasle eta familia orori. Denon artean aurrera, zorianak!!

Egoerak zein alde on eta txar sortu ditu? Zeintzu dira eragozpen eta aukera nabarmenenak?

Kontutan izan behar dugu, lehenik eta behin, orain bizitzen ari



andoaINDARRA
euskaraz

garen egoera hau oso larria dela, eta osasunak duela lehentasuna. Egoera oso zaila eta berria da guztiontzat eta hori barneratu behar dugu lehenik, beste edozer aurretik. Alderdi hori onartu dugu aurreko asteetan eta, orain, alderdi akademikoan zentratuko gara ikasleei ahalik eta eskaintza txukunena ematen. Beste egoera honetatik ere, denon artean, indartuak aterako gara.

Horretan ari gara eta oso pozik ari dira erantzuten. Lasterketa luze guztien antzera, indarrak dosifikatu behar ditugu eta hori momenturo zaintzen dugu, beti ere lehen aipatutako "osotasunean". Ikaskuntza testuinguru berri honetan, gure ikasleak ikasgai bakoitzean irakaskuntza osoa jasotzen ari dira.

Batxilergoan eta selektibitatean dabilazanezi begira, zer esan daiteke?

Etapan oso berezia da hautapropa hor dagoelako. Egunak atzeratu badira ere, erronka horri aurre egiteko irakasle eta ikasle taldea bereziki trebatuta eta prest dago. Baliabideak eta presatatutako irakasleak ditugu ba-



Maite Petrikorena, Ondarreta ikastetxeko zuzendaria. AIURRI

txilergoko bigarren mailako ikasleak selektibitateari aurkezteko eta, modu berean, emaitzak bermatzeko.

Eguneroko albisteak eta eskaerak jarraituko ditugu eta aurrera, egingo dugu. Dagoeneko ari gara.

Ikasleen arlo psikologikoa kontutan hartzen hasi beharko da.

Alderdi hau bereziki zaindu beharrekoa izango da, are gehia-

go egunak aurrera joan ahala. Eguneroko mezuetan, tutore eta irakasle talde osoaren mezua "zaindu" egiten dugu arlo hau indartzeko (gogoetak, bideoak, mezuak, dinamika aktiboak, sare sozialak, hartu eman zuzena eta bisualak ikasleekin, etab).

Datozen egunetan ere Aste Santuko oporraldia dator eta honetan ere lagunduko du.

MAITE PETRIKORENA ONDARRETA IKASTETXEA Nola eragin dizue ikastetxeak ixteko aginduak?

Ikasturtea ez da eten, ez. Martxoaren 13tik jarduera presentziala eten egin zen, baina guk aurrera jarraitu dugu dauzkagun baliabideak erabiliz. Horrela, martxoaren 12an, arratsaldean, ikasle gehienek eskolatik behar zuten materiala eraman zuten: liburuxkak, fitxak, irakurtzeko liburuak... Lehengo astean, oraindik, irakasle batzuk eskolara joan ginen etxerako lan gehiago prestatzera. Baina Hezkuntza Sailetik jarraibide desberdinak iritsi zaizkigu egun hauetan. Hasieran, irakasleok gure lanaldia osoa eta normaltasunez bete behar genuela esanez. Ondorenen, lanaldia egokitzeak aukera eman ziguten, eta baita telelana egiteko aukera ere. Klaustro mailan hartu diren erabakiak helburu bakarra zuten: langileon osasuna ahalik eta gutxien arriskatzea. **Zein prozedura jarri duzue abian, ikasleei begira?**

Martxoaren 13tik aurrera abian jarritako prozedurarekin jarraituz, tutore bakoitza bere ikaslee-

kin telefonoz hitz egiten ari da bi egunean behin. Era horretan, irakasleak ikasleen segimendua egiten ari dira, etxeko lanen martxa, nola dauden, zeintzuk diren beren zailtasunak...

Etxerako lanen inguruan zehaztu behar da bost urteko ikasleek paperez inprimatutako lanak beraien etxeetan jaso dituztela, korreo arruntaz. Lehen Hezkuntzako ikasleek, berriaz, e-postaz edo korreo arruntaz jaso dute guztia. Gaur egun ia etxe guztietan daukate e-posta.

Irakasleok, geure aldetik, eguneroko martxa jarraitu dugu: batzorde pedagogikoak eta ziklo bilerak Meet bidez egiten ditugu, eta dokumentuak eta baliabideak G-Suiteko plataforma bidez partekatzen ditugu.

Nola jarraituko duzue aurrera?

Egunotan noten boletinak familliei helarazi zaizkie. Aldi berean, ikasleen tutoreak gurasoekin telefono bidezko bilerak egiten ari dira, ebaluazioaren berri emateko. Astea horrela emango dugu, eta ostiralean denok ere merezitako oporrak hartuko ditugu. Apirilaren 20tik aurrera, nork jakin...

'Ttap' berritua eskuragarri!



'Gorabeherak' websailarekin!

ttap
Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



AIURRI

Sorabillatik Mundura

KORONABIRUSA ETA ELKARTASUNA Joan zen astetik, N1 errepideko gidariak "Animo" dioten bi pankarta ezberdin ikus ditzakete, Sorabilla paretik igarotzean. Harrera etxeko balkoian jarrita dago bat, eta metro gutxira bestea. Harrera Etxeko kideek, modu horretan, elkartasunezko mezua zabaldu nahi diete auzotarrei eta paretik pasatzen diren bidaiariei.

Ohartarazpen argia

JAKINARAZPENAK KORONABIRUS GARAIA Urnietako Udalak argibide zehatzak egin dizkie herrikideei: "Kalean ahalik eta denbora gutxien igarotzea gomendatzen da". Erosketak astean behin egiteko aholkua luzatu dute

Erredakzioa URNIETA

"Erosketak egunero egin beharrean, hobeto da zerrenda prestatu eta beharrezkoak diren elikagaiak eta gainerako gauzak erostera astean behin irtetea. Eta posible bada txartelarekin ordaindu", horixe da Udalak herrikideei helarazi dien mezua.

Zakurrak

"Txakurrei edo bestelako animaliei dagokienean, paseo laburrak eta etxetik gertu egin behar dira, animalien behar fisiologikoak egiteko beharrezkoa den denbora bakarrik igaroz. Kontuan eduki behar da bai animaliek eta baita jabeek ere gainerako animalia eta pertsonekin kontakturik ez izatea eta animalia lotuta eramatea. Horrez gain,



Konfinamendua areagotzeko proposamenak dira. AIURRI

garbikaria duen ur botila eraman behar da, txakurrak txiza egin ondoren ingurua garbitzeko. Animalien gorotzak jasotzeko

berriz, poltsak erabili behar dira". Txakurren jabeek soinean eraman behar dute animalia doku-mentazioa.

KORONABIRUSA

EGOERA HAU ZURETZAKO GEHIEGI BALDIN BADA LAGUNTZA ESKATU EZAZU ZURE OSASUN ZENTROAN

ONGIZATE EMOZIONALA

- Pentsatu egoera hau pasatu egingo dela
- Isolamendua kutsadura saihesteko beharrezkoa da
- Sortu zure eguneroko errutina
- Egon besteekin telefonoz konektatuta
- Salatu jarrera positiboa izaten eta erlaxatu
- Informatuta egon zaitzez baina mugatu informazioarekiko esposizioa

ELIKADURA

- Menu osasuntsu eta orekatuak gertatu itzazu
- Fruta, barazkiak eta lekaleak jan itzazu
- Ongi hidratatuta egon, ur asko edan ezazu
- Otordu artean mokadurak saihestu, opil industrialak, adibidez

ARIKETA FISIKOAK

- Egin itzazu egunero ariketa fisikoak: etxeko lanak, dantzan, kirola eta oinez ibili
- Saihestu sedentarismoa
- Ez zaitzez ordu bete baino gehiago jarrilekuan exerlita egon

LOAREN HIGIENE-OHITURAK

- Lo errutina bat sortu ezazu
- Lo-ordutegi erregularrak sortu itzazu
- Ohera joateko eta ohetik jaikitze ordutegia planifikatu ezazu
- Ez zaitzez ohera denbora gehiago geratu
- Ez zaitzez gauzez telebista aurrean berandurarte egon

Osakidetza

ERANO JAULAN ETXEA

ERANO JAULAN ETXEA

Gazteen aisialdia antolatzeke saiakera

AIŚIALDIA KORONABIRUS GARAIA Nerabe eta gazteen aisialdia osatzeko proposamenak bideratzen ari dira Andoingo Gazte Lokaletik eta Urnietako Gaztelekutik. Sare sozialak erabiltzen ari dira horretarako, nagusiki Instagram eta Whatsapp

Erredakzioa ANDOAIN-URNIETA

Andoingo Ludotekatik eta Gazte Lokalerik herriko gaztetxoak entretenitzeko lana berbidartzen ari dira. Eta egiten ari direna erakusteko edukiak ikusgai ipini dituzte Instagram eta Facebook sareetan duten profil banatan, eta baita blogean ere. Mekanika zein den azaldu dute, ohar bidez: "Partaidetza sustatzeko Whatsapp taldeen bitartez egiten ari da bideraketa. Ludotekaren kasuan sortutako guraso taldea izango da haurrentzako zubia. Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten leiho berriak erabiliz, hainbat ekintza martxan daude. Adibide gisa: eguneko erronka



Ludotekatik bideratu duten eskulana bat. ARGAKI JABEAK

edo probak, lehiaketa, online partidak, sukaldaritza tailerrak, bideo-deiak, ariketa fisikoa, etxeko animalien edo mozorroen argazkiak, eskulanak...". Aukera zabala, beraz.

Urnietako Gaztelekuaren eskaintza

Gazteak entretenitu asmoz, bere instagram kontuaren bitartez (@gaztelekua_urnieta) hainbat proposamen zabaltzen ari dira. Besteak beste, hieroglifikoak, erreketak eta eskulanak igo ditu, besteak beste.

Egunean behin lehiaketa eza-guna amaitu bada ere, sustatzaileek aste extra batez luzatu dute lehiaketa. Aukera hori baliatuta, Urnietako Gaztelekuak nerabeen taldea sortu du. Aste honetako denborapasatakoa izango da, nahiz eta galdera askoren erantzuna emateko ondoan dituzten pertsona zahar- goen laguntza behar izan.

Gaztelekuarekin komunika- tzeke moduak bi dira, egun hauetan:

- Instagram kontua: @gazteleku_urnieta.
- Whatsapp: 608 928 311.

Animaliak eta errealitate birtuala

Joan zen asteburuan bolo-bolo ibili zen Google-n Chrome nabigatzaileak eskaintzen duen aukera ikusgarria. Animaliak hiru dimentsiotan ikustez gain, etxeko paisaia txertatzeko aukera eskaintzen du. Bideoak eta argazki-muntaiak egiteko aukera ematen zuenez, eduki multimedia hori erabiltzaile askok partekatu zuen.

Muntaiak egiteko jarraibideak erdaraz zeudela ikusita, Aiurriko lantaldeak bideo argigarria landu eta zabaldu zuen euskaraz. Maider Segurora irrati-esatariaren ahotsaz lagunduta, gainera.

Aiurri.eus webgunean ikusgai dago, bideoen atalean klik eginez.

KORONABIRUSA

ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA BABESTEKO?



1 ESKUAK SARRITAN GARBITU.



2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN, ESTALI AHOA ETA SUDURRA UKONDOAREKIN EDO ZAPI BATEKIN.

BOTA ZAPIA BEREHALA ETA GARBITU ESKUAK ALKOHOL-OINARRIA DUEN ESKUETAKO DESINFECTATZAILE BATEKIN EDO UR ETA XABOIAREKIN.



3 MANTENDU METRO BATEKO TARTEA, GUTXIENEZ, EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN DUTEN EDO SUKARRA DUTEN PERTSONENGANDIK.



4 EZ UKITU BEGIAK, SUDURRA ETA AHOA.



5 ETXEAN ETA LEKU PUBLIKOETAN ESKUEKIN UKITZEN DIREN GAINAZALEN GARBIKETA AREAGOTU.



OSAKIDETZA ETA OSASUN SAILAREN WEB ORRIETAN



Osakidetza



Argazkia etxetik, konfinamenduari irudia jarritz

AISIALDIA KORONABIRUS GARAIAN Aiurriko lantaldeak ekimen berria abiarazi zuen, astelehenean hasita. Halabeharrez etxean egon behar dugunez, aiurrizaleei argazki dibertigarriak partekatzeko aukera eskainiko zaie

Erredakzioa ANDOAIN-URNIETA

Bertso-katearen arrakasta eta gero, etxe barruko egonaldia arinago egiteko ekimen berria abiarazi du Aiurriko lantaldeak.

Zer egin parte hartzeko? Oso erraza da, astelehenetik aurrera bidali argazkia e-postaz edo whatsapppe. Argazkiak jaso ahal, denen bistara jarriko den album batera igoko dira.

Harremanetarako bideak:

- Whasappa: 619 163 537.
- E-posta: urnieta@aiurri.eus.

Argazkiak www.aiurri.eus gunera igoko dira, argazki galerien atalean ikusgai egongo den albumean.



Barrasarena izan zen parte hartu zuen lehen familiatakoa. BARRASA

Zein argazki-mota igo daiteke?

- Dibertigarria, atsegina baldin bada, askoz hobe.
- Irudimena erabil daiteke, adibidez, egoerak irudikatzeko ('Zeinen ondo gauden Kari-ben'...).
- Bakarka, binaka, familian, objektuak... aukera zabala dago.
- Argazki hutsa izan daiteke edo esaldiz, bertsoz, emoji edo ikonoz apaindutako irudi-muntaia.
- Ez dira hirugarren pertsonentzat iraingarriak izan daitezkeen irudiak edo irudi-muntaiak argitaratuko.

**WHATSAPP EDO
POSTA ELEKTRONIKO
BIDEZ PARTE HAR
DAITEKE AIURRIKO
EKIMEN BERRIAN**

Non ikus ahal izango dira argazkiak?

Lehenik eta behin Aiurri.eus webgunean ikusi ahal izango dira. Tarteka, #BertsoVID19 ekimenarekin egin bezala, albumaren berri ematen duen albiste sare sozialen bidez zabalduko da #EtxetikAiurrira traola erabiliz.

Parte-hartzea irekia da

- Ekimena Andoaingo eta Urnietako herritar guztiei zabalik dago. Parte-hartzea irekia da.
- Saria ez da nolana hikoia izango: konfinamendu egoeran elkarrekin une atsegina igarotzea.
- Aiurriko erredakzio taldeak, ahobatez erabakiz gero, argazki bat nabarmendu eta egilea opari gozo eta goxo batekin sarituko du.

**EKIMENA
ANDOAINGO
ETA URNIETAKO
HERRITAR GUZTIEI
ZABALIK DAGO**

Covid-19 Osasun Larrialdia

**Euskadiko tokiko saltokiak,
funtsezko jarduerak irekita jarraitzen dute.**

Mila esker!

Guztiek egunero pertsiana igotzeagatik.

Mila esker!

Hurbiltasunez eta profesionaltasunez arreta emateagatik.

Mila esker!

Zuen lana ezinbestekoa da.

Mila esker!

Euskadiko tokiko saltokietako pertsonei.

Mila esker!

Bertan egoteagatik zuen beharra daukagunean.

Tokiko erosketak, egin kontsumo arduratsua, zero xahutze.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, NERKATZARITZA
ETA KONSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

#EuskadikoSaltokiak

#etxetikhurbil

